

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Jendaurrean jartzea hiri antolamendurako plan orokorraren aurrerapena, eta lizentziak etetea

Udalbatzak 2019ko irailaren 20ko osoko bilkuran hau onetsi zuen:

Lehenengoa: Lapuebla de Labarca hiri antolamendurako plan orokorraren aurrerapena jendaurrean jartzea iragarki bana argitaratuta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta lurraldean salduenetakoa den egunkari batean, ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, interesdunek iradokizunak edo hirigintza antolamenduaren beselako aukerak aurkez ditzaten, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 90.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Bigarrena: Bertan behera uztea hasierako onespenera arte, edo gehienez ere urte bateko epera arte, arlo hauetako hirigintza antolamendua, betearazpen prozedurak eta hirigintzako onespene, baimen eta lizentziak:

– Lurzoru desklasifikatuak, indarrean dauden arau subsidiarioen arabera hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri gisa agertzen zirenak eta lurzoru urbanizaezin bihurtu direnak. SAUR 2A, SAUR 2B, SAUR 3 eta 2 poligonoko 560 lurzatia (zati bat).

– Mugaketa berriko egikaritze unitateak edo arau subsidiarioetatik aurrerapenera eremuan, erabileran edo kargan aldaketak izan dituzten egikaritze unitateak: <0> Aurrerapeneko 1, 9-12, 16-21 eta 26-30, eta indarrean dauden arau subsidiarioetako 1-20 arteko unitateak.

– Hiri lurzoru berria, 1 poligonoko 996 A eta C lurzatia.

Jendaurrean jarriko da Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta lurraldean zabalkunde handiena duen egunkarian, edo egunkarietan.

Espedientea Lapuebla de Labarca udaletxean (Plano plazako 9an dauden udal bulegoetan) egongo da ikusgai, astelehenetik ostiralera, bulego orduetan. Gainera, espedientea idatzi duen taldeak herritarrak atenditzeko datak zehaztuko ditu. Data horiek behar bezala argitaratuko dira udalaren web orrian www.lapuebladelabarca.eus.

Lapuebla de Labarca, 2019ko irailaren 25a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ